

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua ondo funtziona dezan hurrengo baliabideak beteko ditugu:

- **Baliabide fisikoak:** lanerako lantegia (Ainizeren lonja), ordenagailua, telefonoa, eguzki plakak, kableak, eguzki bateriak eta Naiaren furgoneta materialak garraiatzeko.
- **Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:**
 - **Naia Galarza Hernaiz:** Lehen aipatu dugun bezala (Funtsezko sozietate atalan) bere ikasketei esker enpresaren administrazioa eramango du eta plaken negoziazioak adostuko ditu bezeroekin.
 - **Nahia Aldama Llamosas:** Lehen aipatu dugun bezala (Funtsezko sozietate atalan) bere ikasketei esker enpresaren plakak diseinatzeaz eta sortzeaz arduratuko da. Halaber, informatikan doktoretza bat dauka, beraz gure web orrialdea eta sare sozialak eramango ditu.
 - **Ainize Llaguno Sagastibelza:** Lehen aipatu dugun bezala (Funtsezko sozietate atalan) bere ikasketei esker enpresaren gizarte-harremanak eramango ditu, hau da, bezeroekin negoziatzeaz arduratuko da.
- **Finantza-baliabideak:** gure aurrezkiak, eta nahikoa ez izanez gero, bankuari mailegu bat eskatuko diogu.

